

## Txotx sasoia abiatu dute Japonian

 Mar 3, 2020
  Sagardoa
  0 comments



Euskal gastronomiak eta sagardoaren kulturak gero eta interes gehiago eragiten dute Japonian. Izatez, beren sagardo propioa ere ekoizten hasi dira herrialde asiarrean. Txotx sasoiaren usadioari jarraiki, zenbait jatetxe beren irekiera berezia ospatzen ari da, eta Zapiain Sagardotegiaren eskutik uzta berriko sagardoa dastatzeko aukera izan dute botilatik.

Ekimen honetan 15 jatetxe eta tabernek parte hartzen dute eta dagoeneko horietako batzuetan ospatu dute txotx irekiera, nagusiki euskal inspirazioko jatetxeetan. Besteak beste, Tokioko Ogasawara Hakushaku-teu (Michelin izar bat), Fermintxo Boca eta Lanbroa, Osakako Ama-Lur nahiz Aupa eta Kyotoko El Bogavante jatetxeak batu zaizkie egitasmoari.

Topaketa hauetan, **Zapiain Sagardotegiko** jatorri deiturako sagardoak dastatzeaz gain, bertaratzen direnek sagardoaren historiaren xehetasunak ezagutzeko aukera izango dute, baita sagarrak, ekoizpen prozesua eta edari hau inguratzen duten adierazpide sozialak ere. Ekitaldi hauen karira, Zapiain-ek aurtengo **Euskal Sagardoa** jatorri deiturako lehenengo sagardo berria botilaratu du, bertako sagar bariatateekin egina eta bereziki Japoniarako etiketatua. Orotara, 400 bat botila bidali dira hegazkinez.

Euskal kulturak eta gastronomiak Japonian sortzen duten ikusmina oso ezaguna da. Gero eta gehiago dira mundo osoan famatua den sukaldaritzarekin eta bestelako erakargarriekin gozatzeri Euskal Herrira iristen diren turistak. Euskal sagardo naturalaren gaineko jakin-mina ere hazten doa, edari honen munduko ekoizle ezagunenetakoa izaki. 2019ko udan, **Sagardoetxea** museoko bisitariak %20 hazi ziren, eta nazioarteko turisten inguruan japoniarrak lehenengo postuetan ageri dira.

Arrazoi honegatik, Zapiain Sagardoak, Union Liquors enpresarekin elkarlanean, euskal sagardoaren sustapena indartzeko erabakia hartu du. Gainera, gero eta produktu gehiago esportatzen da herrialde honetara. Japoniak ez dauka sagardo ekoizpen tradizioirik, baina Fuji bezalako sagar barietate ezagunak hazten dira bertan.

Azkeneko urteotan, sagardoa ekoizten duten upategi berriak sortu dira, nagusiki Naganoko Prefekturan. Hain zuzen, Sagardoaren Lurraldeak abiatutako **Ciderlands** nazioarteko sagardoaren kultura eta turismoaren sareko kide bilakatzeko asmoa azaldu du eskualde honek. Sare honetan dagoeneko Europako 10 herrialdek parte hartzen dute.

Euskal eta japoniar sagardozaileen anaiartekotze honek jarraipena izango du datozen hilaeteotan ekimen berrien bitartez. Asmoa ez da soilik Japonian sagardoaren sustapena indartzea, bi herrialdeen arteko loturak sendotzea baizik, sagardoak mundo osoan hazkunde nabarmena bizi duen une honetan.

ARGAZKIA: Osakako Ama-Lur jatetxeko arduradunak.

## Bilatzailea

<input type="text"/>	Bilatu
----------------------	--------

## Kategoriak

Agenda

Argitalpenak

Azokak

Berriak

Ekitaldiak

Erakusketak

Esperientziak

Formazioa

Gastronomia

Historia

Kultura  
Lehiaketak  
Museoak  
Sagardoa  
Sagardotegiak  
Sagarra  
Sagastia  
Turismoa

## Artxiboak

Hautatu hilabetea



## ZATOZ ETA GOZATU

**SAGARDOAREN  
LURRALDEA**  
el territorio de la vida

Kale Nagusia, 48

20115

Astigarraga

Gipuzkoa

## LAGUNTZA BEHAR DUZU?

📞 943 550 575

JARRAI IEZAGUZU...



### ESPERIENTZIAK

Zure plana erreserbatu

Hautatutako ibilbideak

Beste proposamenak hemendik gertu

Nola mugitu

Non lo egin

Gidak eta informazio praktikoa

### SAGARDOTEGIAK

Sagardotegia erreserbatu

Sagardotegia aukeratu

Garraioa sagardotegietara

Sagardotegiaz gozatzeko gomendioak

### SAGARDOETXEA

Sagardoetxea – museoak

Erakusketa eta bisita guneak

Bisita motak

Nola iritsi eta sarbideak

Tarifak eta ordutegiak

Bisita erreserbatu

Bisita birtuala

Dokumentazio Zentroa

[SAGARDO FORUM](#)

[AGENDA](#)

[BLOGA](#)

[HEDAPENA](#)

[Informazio orokorra](#)

[Boletina](#)

[Argazkiak](#)

[Buletinera harpidetza](#)

[Hitzaldiak](#)

[Sare sozialak](#)



**EUSKADI**  
**BASQUE COUNTRY**



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



© 2020 Sagardun Partzuergo publiko-pribatua

LEGEZKO INFORMAZIOA

[NOR GARA](#)

[PROIEKTUAK](#)

[AKORDIOAK](#)

[KONTRATATZAILEAREN PROFILA](#)